Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko uztailaren 14a, osteguna — 134 — Jueves, a 14 de julio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZERAINGO UDALA

*Zeraingo udalean zerbitzu anitzezko peoia» lanpostua lehiaketa ireki bidez betetzeko oinarriak.*

Zeraingo Alkateak 2022ko uztailaren 1ean 2022/38 erabakia hartu zuen:

*Lehena.* Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako aparteko egonkortze-prozesuak arautuko dituzten oinarri hauek onartzea zerbitzu anitzezko peoi lanpostua langile lan-kontratudun finko bihurtzeko, lehiaketa prozesu ireki bidez.

*Bigarrena.* Deialdi honen iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz aldizkari ofizial batean argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, akordio hau azken aldiz aldizkari ofizial batean argitaratzen denetik hasita.

Zerain, 2022ko uztailaren 1a.—Amaia Junquera Landeta, alkatea. (4505)

*1. Deialdiaren helburua.*

Deialdiaren helburua da Zeraingo Udaleko «zerbitzu anitzezko peoiak» pertsonal laboral lanpostua lehiaketa ireki bidez betetzea enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera.

Deialdian ateratako lanpostuak honako ezaugarri hauek ditu:

— Eskala: Administrazio berezia.

— Azpieskala: Administrazio berezia.

— Taldea: Zerbitzu bereziak.

— Lanaldia: % 50.

— Hizkuntza eskakizuna: 1, derrigorrezkoa.

— Beharrezko titulua: Eskola ziurtagiria.

Prozesu honetan parte hartu arren lehiaketan lor daitezkeen puntu guztien % 50etik gorako puntuazioa lortzen duten izangaiak lan-poltsa batean sartuko dira. Udalak lan-poltsa hori erabiliko du alor horretan sortzen zaizkion aldi baterako beharrei erantzuteko.

Deialdi honen egunean peoi lanpostua betetzen ari den pertsonak parte hartu behar du lehiaketa honetan. Ez parte hartzeak lanpostua finkatzeko ezintasuna eta kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik eza ekarriko du (20/2021 Legearen 2.6 artikulua).

## AYUNTAMIENTO DE ZERAIN

*Bases para la provisión de una plaza de «peón de servicios múltiples» en el ayuntamiento de Zerain, mediante concurso libre.*

La alcaldesa de Zerain en fecha de 1 de julio de 2022 ha adoptado el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar las siguientes bases que han de regir el proceso extraordinario de estabilización previstos en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, para cubrir la plaza de personal laboral fijo de peón de servicios múltiples, mediante concurso libre.

*Segundo.* La publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que se estime procedente, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a partir de su publicación en el último de los boletines oficiales.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, se podrá interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que ha dictado el acuerdo, en el plazo de un mes desde su publicación en el último de los boletines oficiales.

Zerain, a 1 de julio de 2022.—La alcaldesa, Amaia Junquera Landeta. (4505)

*1. Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de la presente convocatoria la provisión de una plaza de personal laboral de «peón de servicios múltiples» a través del procedimiento de concurso de méritos conforme a la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.

La plaza convocada se encuadra en la:

— Escala: Administración especial.

— Subescala: Administración especial.

— Grupo: Agrupaciones Profesionales.

— Dedicación: 50 %.

— Euskera: 1, perceptivo.

— Titulación exigida: Certificado de Escolaridad.

Todas aquellas personas aspirantes que habiendo participado en dicho proceso no superen el mismo, pero obtengan una puntuación superior al 50 % de la totalidad de los puntos obtenibles en el concurso, entrarán a formar parte de una bolsa de trabajo. El ayuntamiento utilizará dicha bolsa de trabajo para cubrir las necesidades temporales que vayan surgiendo en el ámbito.

Se encuentran obligados a participar a este concurso la persona que esta ocupando la plaza de peón a fecha de esta convocatoria. Su no participación determinará la imposibilidad de consolidar el puesto de trabajo y la ausencia de indemnización o compensación económica (art. 2.6 de la Ley 20/2021).

EK\CV GAO-I-2022-04505

2. Egin beharreko lanak.

— Herriko instalazio publikoen mantenua egin.

— Jardineritzako mantenimendua: belarra eta setoak moztea, podaketak, belarra erretzeko botika bota, landarren zaintza...

— Hiri-altzariak mantentzea.

— Igeltseritza lanak egin: paretak egin, arketak, baldosak jarri...

— Iturgintza lanak: tuberiak, ataskoak, matxurak...

— Pintaketa eta barnizketa lanak.

— Elektrizitate lanetan laguntza: argiteria Publikoa...

— Soldatzea.

— Kale garbiketa lanak burutu.

— Neguan elurra kendu eta gatza bota herriko auzo eta baserri guztietan.

— Liztor asiatikoak kentzea, alturan eta botika egokia erabiliz.

— Alturako lanak.

— Larrialdi egoeretan parte hartzea eta laguntzea.

3. Aurkeztu nahi duten pertsonek bete behar dituzten baldintzak.

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte, onartua izateko eta, hala badagokio, lehiaketan parte hartzeko:

a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean hemezortzi (18) urte beteta izatea eta derrigorrezko erretirorako adina ez gainditzea.

c) Dagozkion egiteko eta lanetarako gaitasun eta trebezia fisiko zein psikikoak izatea.

d) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik ez izatea.

e) Irakaskuntza probak gainditu izana eta eskatzen den titulazioa edo indarrean den legediak onartzen duen titulu baliokidea izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, berauen homologazioa frogatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da.

f) Lanpostuak derrigorrean ezarrita duen euskarazko 1. Hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuan eta berau aldatzen duen otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

g) B gidabaimena edukitzea.

h) Diziplina-espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta dagokion Estatuan baldintza berbe-

2. Funciones a desempeñar.

— Realizar el mantenimiento de las instalaciones públicas del municipio.

— Mantenimiento de jardinería: corte de hierba y setos, poda, cuidado de plantas...

— Mantenimiento de mobiliario urbano.

— Trabajos de albañilería: hacer paredes, arquetas, baldosas...

— Fontanería: tuberías, atascos, averías...

— Trabajos de pintura y barnización.

— Asistencia en trabajos de electricidad: alumbrado Público.

— Soldadura.

— Realizar trabajos de limpieza viaria.

— Quitar la nieve en invierno y echar sal en todos los barrios y caseríos del pueblo.

— Retirada de avispas asiáticas en altura y con la medicación adecuada.

— Realizar trabajos de altura.

— Participación y apoyo en situaciones de emergencia.

3. Requisitos a cumplir por las personas que deseen presentarse.

Para ser admitidas y, en su caso, participar en el concurso, las personas aspirantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar en posesión de la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún estado al que, en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español, le sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

b) Tener cumplidos los 18 años el día en que finaliza el plazo de presentación de solicitudes, no superando la edad máxima para la jubilación obligatoria.

c) Poseer las capacidades y aptitudes físicas y psíquicas necesarias para el desempeño de las correspondientes funciones y tareas.

d) No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto.

e) Haber superado las pruebas de enseñanza y tener la titulación exigida o disponer de un título equivalente reconocido por la ley vigente.

En el caso de las titulaciones extranjeras, se deberá estar en posesión y presentar la correspondiente credencial que acredite su homologación.

f) Acreditar estar en posesión del Perfil Lingüístico 1 de euskera o equivalente, perceptivo para cubrir la plaza, de conformidad con el decreto 64/2008, de 8 de abril, de convalidación de títulos y certificados acreditativos del conocimiento de euskera y adecuación de los mismos al Marco de Referencia Común Europeo para las lenguas, y el decreto 48/2009, del 24 de febrero, que modifica este último.

g) Poseer el permiso de conducir B.

h) No haber sido separado mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las administraciones públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las comunidades autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro estado, no hallarse inhabilitado o

EK\CV GAO-I-2022-04505

retan enplegu publikora iristea eragotziko duen diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere.

i) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege-kausaren batean sartuta ez egotea.

Baldintza horiek guztiak, f) puntuan aipatzen dena izan ezik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete behar dira.

*4. Eskabideak.*

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak Udalak prestatutako eredu ofizial eta normalizatuari egokituko zaizkio. Eskabidea oinarri hauen II. eranskinean jasota dago. Udal bulegoetan eta Zeraingo Udalaren www.zerain.eus web-orrian ere eskura daiteke.

Lehiaketa honetan onartua izateko eskabideak Zeraingo Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta eskabide horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:

a) Izangaiek adierazi beharko dute oinarri hauen hirugarren atalean zehazturiko baldintza guztiak betetzen dituztela. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete beharko dituzte.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Nortasun Agiri Nazionalaren kopia edo Europar Batasuneko beste estatu batzuetako hautagaien kasuan, nortasuna eta herritartasuna egiaztatzen dituen dokumentua.

— Deialdian parte hartu ahal izateko eskatutako tituluaren kopia.

— B gidabaimenaren kopia.

— Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiri konpultsatua.

— I eranskina. Oinarri hauetan jasotako ereduaren arabera alegatu daitezkeen merezimenduak, bertan zehaztuko baitira interesdunek alegatutakoak. Agiriak onartuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren aurkeztuko dira, eta honako agiri hauekin alegatuko dira:

1. Administrazio Publikoren bateko esperientzia hark eginiko ziurtagirien bidez egiaztatuko da. Hori Zeraingo Udalean izan bada, nahikoa izango da eskabidean adieraztea eta, izangaien espediente-pertsonaletan jasotako datuen arabera baloratuko da.

2. Enpresa pribatuetan betetako zerbitzuak, ziurtagiriekin eta zuzenbidean onartutako edozein modutan alegatutako merituen memoria xehe eta justifikatuen bidez frogatuko dira; edozein kasutan, Gizarte Segurantzak igorritako lan-bizitzaren kopia justifikatzaile batez, kontratuaren kopia batez eta/edo izendapenez lagundua joan beharko dute.

3. Titulu akademiko ofizialak fotokopia konpultsatu baten bidez egiaztatuko dira.

4. Prestakuntza-ikastaroei buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko den agirian zehaztu beharko da ikastaro horien iraupena ordu edo egunetan, bestela ez baita kontuan hartuko. Egunetan egiaztatuko balitz, eguneko 2 ordu hartuko dira kontuan, baldin eta ekarritako agirietan bestelako iraupenik ondorioztatzen ez bada.

c) Eskabideak, behar bezala bete ondoren, Zeraingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hogei (20) egun naturaleko epean.

en situación equivalente ni haber sido sometido sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

i) No estar incurso en ninguna causa legal de incapacidad e incompatibilidad, de acuerdo con lo previsto en la Ley 53/1984, de incompatibilidad del personal al servicio de las administraciones públicas.

La totalidad de las condiciones exigidas en esta base, exceptuada la recogida en el punto f), deberán cumplirse a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

*4. Instancias.*

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que se recoge como anexo II de las presentes bases. También podrá obtenerse en las oficinas municipales y en la página web del Ayuntamiento de Zerain, en la dirección www.zerain.eus.

Las instancias solicitando la admisión en el concurso se dirigirán al alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zerain, y deberán reunir obligatoriamente los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

a) Las personas aspirantes deberán manifestar que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos en la base 3.ª, referidos siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

b) Se adjuntará a la instancia la siguiente documentación:

— Fotocopia del D.N.I. o, en caso de aspirantes pertenecientes a otros estados de la Unión Europea, documento acreditativo de su identidad y nacionalidad.

— Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

— Fotocopia del permiso de conducir B.

— Fotocopia del documento acreditativo del cumplimiento del perfil lingüístico exigido compulsado.

— Anexo I. Méritos alegables conforme al modelo recogido en esas bases y en que se detallarán los alegados por los interesados. La documentación se presentará una vez de ser publica la lista definitiva de admitidos y se alegarán con la siguiente documentación:

1. La experiencia en alguna Administración Pública se acreditará con la presentación del certificado expedido por la misma. Si ha sido en el Ayuntamiento de Zerain, bastará su alegación, valorándose en base a los datos que obren en los expedientes personales de las personas candidatas.

2. Los servicios prestados en la empresa privada, se acreditarán con certificados y memorias detalladas y justificadas de los méritos alegados en cualquiera de las formas admitidas en derecho, y en todo caso, deberán ser acompañadas de copia justificativa de la vida laboral expedida por la Seguridad Social, copia del contrato, y/o nombramiento.

3. Los títulos académicos oficiales se acreditarán mediante fotocopia compulsada.

4. En la documentación que se presente para acreditar el mérito referente a los cursos de formación, deberá especificarse la duración de los mismos en horas o días, no valorándose este mérito en caso contrario. En el supuesto de su acreditación en días, se computarán 2 horas por día, salvo que de la documentación aportada se deduzca otra duración.

c) Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Zerain dentro del plazo de veinte (20) días naturales contados desde el siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-04505

Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira www.zerain.eus.

Halaber, eskabideak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehazten diren leku eta erregistroetan aurkeztu daitezke. Zeraingo Udalaren alkate-udalburuari zuzenduak izango dira, eta eskaerak aurkezteko epearen barruan datatu eta zigilatuko ditu dagokion funtzionarioak. Egitatezko errakuntzarik hautematen bada, edozein garaitan zuzendu ahal izango da, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta.

*5. Izangaiak onartzea. Deialdiak eta jakinarazpenak.*

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkateak onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta baztertzeko arrazoiak azalduko dira bertan, hautaketa-epaimahaiaren osaerarekin batera. Zerrenda hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, bai eta udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian ere. Ondoren, hamar (10) laneguneko epea egongo da erreklamazioak edo akatsak konpontzeko, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 68. artikuluak dioen bezala.

Erreklamaziorik egon ezean, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik egongo balitz, onetsiak edo gaitzetsiak izango dira, behin betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen baten bidez, eta hori lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, onartu eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, bidezkoa irizten den beste edozein errekurtso ere jarri ahal izango da, berraztertzekoa barne. Horretarako epea hilabetekoa da.

*6. Epaimahai kalifikatzailea.*

Balorazio batzordea titularrek eta ordezkoek osatuko dute, eta izendapena Zeraingo Udaleko iragarki-oholean argitaratuko da. Hori ondorengoek osatuko dute:

Mahaiburua:

— Zeraingo udaleko edo beste administrazio bateko karrerako funtzionario bat.

Bokalak:

— Zeraingo udaleko edo beste administrazio bateko hiru karrerako funtzionario.

Idazkaria:

— Zeraingo udaleko administrari bat.

Balioespen batzordeko kideek (idazkaria ezik) karrerako funtzionarioak behar dute izan eta gainera bere titulazio maila ezinbestez izango da deitutako lanpostua atxikita duen titulazio taldearen berdina, edo berau baino handiagoa.

Batzordeko kideei aplikatuko zaizkie urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23 eta 24 artikuluetan jasotzen diren abstentzio- eta ezespen kausak.

Balorazio batzordeak adituak diren aholkularien lankidetza eska lezake. Batzordea beti jardungo da Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

También podrán presentarse a través del registro electrónico del Ayuntamiento: www.zerain.eus.

Igualmente, las instancias podrán presentarse en los lugares y registros señalados en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Se dirigirán al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zerain, y deberán ser fechadas y selladas por el funcionario correspondiente dentro del plazo de presentación de instancias. Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado.

*5. Admisión de las personas aspirantes. Convocatorias y notificaciones.*

Expirado el plazo de prestación de instancias, el Alcalde aprobará la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos, con indicación, en su caso, de las causas de exclusión, junto con la composición del tribunal de selección. La lista se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será expuesta en el tablón de anuncios del ayuntamiento de Zerain y en la página web, concediéndose un plazo de diez (10) días hábiles a efectos de reclamaciones y subsanación de errores, de conformidad con el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva y que se hará pública, así mismo, en la forma indicada.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Juzgado de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la lista de admitidos y excluidos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se estime procedente, incluido el de reposición, en el plazo de un mes.

*6. Tribunal calificador.*

La comisión de valoración estará compuesta por miembros titulares y suplentes cuya designación será publicada en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zerain, quedando constituido de la siguiente manera:

Presidente/a:

— Una persona funcionaria técnica municipal del Ayuntamiento de Zerain o de otra Administración.

Vocales:

— Tres personas funcionarias de carrera del Ayuntamiento de Zerain o de otra administración.

Secretario/a:

— Un/a administrativo/a del Ayuntamiento de Zerain.

El personal integrante de la comisión de valoración (excepto el/la secretario/a) deberá ser funcionario de carrera de igual o superior grupo de titulación al que esté adscrito el puesto convocado.

A quienes integran la comisión les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas en los arts. 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

La comisión de valoración podrá recabar la colaboración de asesores expertos/as en las materias de que se trate. El procedimiento de actuación de la comisión se ajustará, en todo momento, a lo dispuesto en el Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

EK\CV GAO-I-2022-04505

*7. Lehiaketa berezia.*

Hautaketa-prozesua lehiaketa izango da, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta seigarren xedapen gehigarrian ezarritako prozeduraren esparruan, hautaketa-prozesuaren arintasun-printzipioaren pean, Enplegatu Publikoaren Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.6 eta 61.7 artikuluak.

Batzordeak, laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, agiri bidez adierazitako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu, betiere dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen eguna erreferentziatzat hartuta.

Deitutako lanpostuaren ezaugarriekin zerikusia duten merezimenduak baloratuko dira, betiere ondorengo irizpideen baitan. Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira.

1. Eginiko lanaren balorazioa: Atal honetan gehienez ere 60 puntu lortuko dira, ondorengo era honetan:

— Lanbide-esperientzia administrazio publikoan, deitutako lanpostuaren funtzioak edo antzekoak betez: hileko 0,84 puntu (gehienez 60 puntu).

— Lanbide-esperientzia enpresa pribatuetan, deitutako lanpostuaren funtzioak edo antzekoak betez: hileko 0,50 puntu (gehienez 40 puntu).

2. Titulu akademiko ofizialak.

Baloratuko dira deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak. Gehienez ere 30 puntu emango dira.

— Batxilergoko titulua: 5 puntu.

— Erdi-mailako titulua: 5 puntu.

— Goi-mailako titulua: 10 puntu.

— Unibertsitate titulua: 15 puntu.

3. Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak: deituriko lanpostuaren eginkizunekin edo honetan jarduteko trebetasunekin loturiko gaietan zerikusi zuzena dutenak izan beharko dute. Gehienez ere 10 puntu arte baloratuko dira.

a) Prestakuntza oso egokia: 2 puntu.

b) Onartzeko moduko prestakuntza: 1.

Lehiaketa bidezko hautaketa-prozesua amaitutakoan, puntuaziorik handiena lortu duen izangaia lan-kontratuko langile finkotzat hartuko da.

*8. Balorazio Batzordearen proposamena.*

Balorazio batzordeak lanpostuaren behin-behineko esleipen proposamena egingo du hautaketa prozesu osoan punturik gehien erdietsi duen lehiakidearen alde. Proposamena Zeraingo Udaleko iragarki-oholean eta www.zerain.eus udal web orrian argitaratuko da eta 10 lanegunez erreklamazioak egin ahal izango dira. Balorazio batzordeak ebatziko ditu erreklamazio horiek.

Gainera, balorazio batzordeak zerrenda osagarri bat egingo du proposatutakoaren atzetik geratzen diren pertsonekin, lehiaketan parte hartu duen pertsonaren batek uko egiten badio edo hamargarren oinarrian adierazitako arrazoiengatik postua hartu ezin badu, hau bete tzen dela ziurtatzeko.

Puntuazioan berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauen arabera erabakiko da, hemen azaldutako ordenari jarraiki:

— Lehentasuna emango zaie emakumeei, dagokion administrazio-atalean edo eskalan % 40baino gutxiago badira.

*7. Concurso específico.*

El proceso selectivo será el concurso, en el marco de un procedimiento fijado por el artículo 2 y la disposición adicional sexta de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, bajo el principio de agilidad en el proceso selectivo, de conformidad con el art. 61.6 y 61.7 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto del Empleado Público.

La comisión valorará los méritos, alegados y acreditados documentalmente de acuerdo con lo establecido en la base cuarta, con referencia a la fecha de publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Se valorarán los méritos relacionados con las características del puesto convocado, conforme a los criterios que a continuación se señalan. La puntuación máxima será de 100 puntos.

1. Valoración del trabajo desempeñado: Este apartado se valorará sobre un máximo de 60 puntos, de la siguiente manera:

— Experiencia profesional en la Administración Pública, desempeñando un puesto de contenido igual o similar al convocado: a razón de 0,84 puntos por mes (máximo 60 puntos).

— Experiencia profesional en los servicios prestados en la empresa privada, desempeñando un puesto de contenido igual o similar al convocado: a razón de 0,50 puntos por mes (máximo 40 puntos).

2. Títulos académicos oficiales.

Se valorarán aquellos títulos distintos al exigido para tomar parte en la convocatoria, sobre un máximo de 30 puntos.

— Título bachillerato: 5 puntos.

— Título de grado-medio: 5 puntos.

— Título de grado superior: 10 puntos.

— Título universitario: 15 puntos.

3. Cursos de formación y perfeccionamiento en materias relacionadas con las funciones propias del puesto de trabajo convocado o con destrezas requeridas para su desempeño. Se valorará sobre un máximo de 10 puntos.

a) Formación muy adecuada: 2 puntos.

b) Formación admisible: 1 punto.

Concluido el proceso de selección por concurso el aspirante que hubiera obtenido la mayor puntuación será considerado personal laboral fijo.

*8. Propuesta de la Comisión de Valoración.*

La comisión de valoración realizará la propuesta provisional de adjudicación del puesto convocado a favor de la persona concursante que haya obtenido la mayor puntuación en el conjunto del proceso selectivo. Esta propuesta se hará pública en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zerain y en la web municipal www.zerain.eus, concediéndose un plazo de 10 días hábiles para reclamaciones. Estas reclamaciones serán resueltas por la comisión de valoración.

Además, la comisión de valoración confeccionará también una relación complementaria con las personas que sigan a la propuesta, al objeto de asegurar la cobertura del puesto en caso de renuncia o en el supuesto de que alguna persona concursante no pueda ser finalmente adscrita al puesto por los motivos señalados en la base décima.

En caso de empate en la puntuación, se decidirá de conformidad con los siguientes criterios, siguiendo asimismo el orden aquí expuesto:

— Se dará prioridad a las mujeres, en el caso de que las mujeres representen menos del 40 % en el correspondiente cuerpo o escala de la administración.

EK\CV GAO-I-2022-04505

— Lanaldi esperientzian puntu gehien lortzea.

— Titulazio akademikoan puntuazio gehien lortzea.

— Euskara maila altuagoa duena.

— Formakuntzan puntuazio gehien lortzea.

Inork ez balu erreklamaziorik egingo proposamena behinbetikotzat joko litzateke. Norbaitek egingo balu, berriz, esleipen proposamen berri baten bidez onartu edo errefusatuko da, lehen adierazitako modu berean argitara emango dena.

Balorazio batzordeak, lehiakide bakar batek ere gutxiengo puntuak ez balitu lortuko, lehiaketa hutsaltzat jo dezake, eta halaxe aitortu eskumena duen organoari.

*9. Atzera egitea.*

Lehiakideek lehiaketa osoan, parte hartzeari dagokionez, atzera egiteko aukera izango dute, baldin eta zortzigarren oinarrian adierazitako erreklamatzeko epea amaitu baino lehenago egiten badute.

*10. Ebazpena, prestakuntza, lanpostu uztea eta hartzea.*

Proposatutako lehiakideak 3 lanegun izango ditu –emaitza argitara eman ondoren– lehiaketan esku hartzeko eskaturiko agirien jatorrizkoak aurkezteko ala nola baloratutako merezimenduak egiaztatzeko jatorrizkoak ekartzeko, hots, norberaren espedientean azaltzen ez direnak.

Aipatutako epean eta ezinbestekorik ezean dokumentazioa aurkezten ez duen edo eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez duen lehiakideak ezingo du deitutako postua bete eta bere jarduera guztia baliogabetuko da. Hori gertatuz gero, zortzigarren oinarrian aipatutako zerrenda osagarriko hurrengo pertsona proposatuko da.

Lehiaketa Alkatetzak dekretu baten bidez ebatziko du eta berori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

Adskribitutako lanpostu-uztea lehiaketako ebazpena argitara eman ondorengo 3 lanegunen barruan egin beharko da. Epe hau –aparteko arrazoiren bat tarteko dela medio, eta behar bezala adierazita– langileria gaietan eskumena duen organoak luza dezake.

Posesioa hartzeko data adskribitutako lanpostu-uzte biharamuna izango da. Ebazpena dela-eta zerbitzu aktibora itzultzea tokatuko balitz, lanpostuaren posesioa hartzea lehiaketako ebazpena argitara eman ondorengo 3 lanegunen barruan egingo litzateke.

Hori horrela izanik ere, antolaketari buruzko aparteko arrazoiren bat izanez gero, esleipenaren ebazpenean zehaztu ahal izango da aurreko lanpostua uzteko eta berriaren jabetza hartzeko eguna.

Esleitutako lanpostua lehiatzaileak bere borondatez beteko duenez, ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, betiere zerbitzuari buruzko arrazoiak direla-eta kalte-ordainen araubidean aurreikusitako aparteko egoerak kontuan izan gabe.

*11. Praktikaldia.*

Aurreko oinarrian adierazitakoaren arabera postu berria izango duen pertsonak gehienez ere sei hilabeteko praktikaldia gainditu beharko du.

Epe horretan betetzen duen lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko ditu.

Praktikaldia amaitutakoan, horretarako osatzen den Ebaluazio Batzordeak txosten bat egingo du pertsona hori lanpostura egoki tzen den jakiteko eta emaitza Gai edo Ez Gai izango da.

— La obtención del mayor número de puntos en los méritos de experiencia.

— La obtención del mayor número de puntos en los méritos de títulos académicos.

— Al aspirante que tenga mayor nivel de euskera.

— La obtención del mayor número de puntos en los méritos de formación.

La propuesta se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva propuesta de adjudicación que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

La comisión de valoración propondrá declarar desierto el concurso al órgano competente, en el supuesto de que ninguna de las personas concursantes alcance la puntuación mínima establecida.

*9. Desestimiento.*

Las personas concursantes, voluntariamente, podrán desistir de su participación en la totalidad del concurso, siempre que sea con anterioridad a la fecha de finalización del plazo de reclamaciones previsto en la base octava.

*10. Resolución, formación, cese y toma de posesión.*

La persona concursante propuesta aportará, dentro del plazo de 3 días hábiles a partir de la publicación referida, los documentos originales acreditativos de cumplimiento de las condiciones que, para tomar parte en la presente convocatoria, se exigen en las bases, así como la documentación original acreditativa de los méritos valorados, salvo que obren en su expediente personal.

Si dentro del plazo señalado y salvo causa de fuerza mayor, la persona concursante no presentase la documentación o no acreditase reunir los requisitos exigidos, no podrá ser adscrita al puesto convocado, quedando anuladas todas sus actuaciones, en cuyo caso, se propondrá la siguiente persona de la relación complementaria a la que se hace referencia en la base octava.

El concurso se resolverá mediante Decreto de Alcaldía, siendo publicado este acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El cese en el puesto de adscripción deberá efectuarse dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. Excepcionalmente este plazo podrá ser prorrogado por el órgano competente en materia de personal, cuando concurran circunstancias debidamente motivadas.

La fecha para tomar posesión será el día siguiente al del cese. Si la resolución comporta reingreso al servicio activo, la toma de posesión deberá efectuarse dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso.

No obstante, cuando razones organizativas lo aconsejes, en la resolución de adjudicación se podrá determinar la fecha concreta de cese y toma de posesión de la persona adjudicataria.

El destino adjudicado se considerará que tiene carácter voluntario y no dará derecho al abono de indemnizaciones por ningún concepto, sin perjuicio de las excepciones previstas en el régimen de indemnizaciones por razón de servicio.

*11. Periodo de prácticas.*

La adscripción inicial al puesto de trabajo será provisional. La persona adscrita al nuevo puesto conforme se señala en la base anterior, deberá superar un período de prácticas que tendrá una duración máxima de seis meses.

Durante este período, percibirá las retribuciones que tenga asignadas el puesto de trabajo que desempeñe.

Finalizado el período de prácticas, la Comisión de Evaluación que se conforme al efecto emitirá un informe sobre la adecuación de esta persona al puesto con el resultado de Apto-a o No Apto-a.

EK\CV GAO-I-2022-04505

Praktikaldia gainditzen badute, behin betiko atxikiko zaizkio postuari.

Ez badute gainditzen, hasieran lanpostuari atxikitako pertsona bere jatorrizko postura itzuliko da organo eskudunaren erabaki bidez.

Praktikaldia ez gainditutako kasuan edo lehiatzaile batek horretarako ezarritako epean uko egiten badio izendapenari, organo eskudunak postua esleituko dio bederatzigarren oinarrian aipatzen den zerrenda osagarriko hurrengoari, hamargarren oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Berriz ere arestian deskribatutako egoeraren bat gertatzen bada, era berean jardungo da, bederatzi garren oinarriko zerrenda osagarria agortzen den arte.

*12. Mugikortasuna.*

Funtzionarioak beste lehiaketan esku hartu ahal izateko lanpostu bakoitzen behin-betiko destinoarekin gutxienez bi urte ari beharko du lanean.

*13. Gorabeherak eta legeri aplikagarria.*

Balorazio batzordeak, oinarrietan eta legeri aplikagarrian, batez ere urriaren 13ko 190/2004 dekretua eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusi gabeko gauza guztietan, ahalmena izango du zalantzak ebazteko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko.

*14. Aurka egiteak.*

Deialdia, oinarriak eta horietatik eta balorazio batzordearen jardunaren ondorioz izan daitezkeen egintza administratibo guztiak inpugnatu ahalko dira, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta forman.

En el supuesto de que el periodo de prácticas sea superado, la adscripción al puesto tendrá carácter definitivo.

En caso contrario, la persona inicialmente adscrita volverá a su puesto de origen previo acuerdo adoptado al respecto por el órgano competente.

Tanto en el supuesto de no superación de las prácticas como si se produce la renuncia de un/a concursante en el pazo establecido para ello, el órgano competente adscribirá al puesto a la persona que ocupe el primer lugar en la relación complementaria a que se hace referencia en la base novena, una vez que haya aportado la documentación señalada en la base décima.

Si se volviera a producir alguna de las situaciones descritas, se actuará de la misma manera hasta que se agote la relación complementaria de la base novena.

*12. Movilidad.*

La persona funcionaria deberá permanecer en cada puesto de trabajo de destino definitivo un mínimo de dos años para poder participar en los próximos concursos de provisión.

*13. Incidencias y legislación vigente.*

La comisión de valoración quedará facultada para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del concurso, en todo lo no previsto en estas bases y en la legislación aplicable, especialmente en Decreto 190/2004, de 13 de octubre y la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*14. Impugnaciones.*

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllas y de la actuación de la comisión de valoración podrán ser impugnados, en los plazos y forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2022-04505

**ERANSKINA I / ANEXO I**

ZERAINGO UDALA

**HAUTAKETA-PROZESUETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA (ZERBITZU ANITZEKO PEOIA)**

SOLCITUD PARA PARTICIPAR EN PROCESOS SELECTIVOS (PEÓN DE SERVICIOS MÚLTIPLES)

| **1. ESKATZAILEAREN DATUAK/DATOS DEL SOLICITANTE** | | | |
|---|---|---|---|
| 1. Abizena /1. apellido | 2. abizena/ 2. apellido | Izena/Nombre | NAN/DNI |
| | | | |
| Helbidea/Domicilio | | | PK/CP |
| | | | |
| Herria/ Municipio | | Jaioteguna/Fecha de nacimiento | |
| | | | |
| Telefonoa | | E-posta/E-mail | |
| | | | |

**2. ALEGATUTAKO MEREZIMENDUAK /MÉRITOS ALEGADOS**

| **Herri Administrazioetan Betetako zerbitzuak /Servicios Prestados en Administracioes Públicas** | | | |
|---|---|---|---|
| Herri administrazioa/ Administración Pública | Lanpostua / Puesto | Hasiera Data / Fecha comienzo | Amaiaera Data/ Fecha Fin |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

| **Herri Administrazioetan Betetako zerbitzuak /Servicios Prestados en Administracioes Públicas** | | | |
|---|---|---|---|
| Herri administrazioa/ Administración Pública | Lanpostua / Puesto | Hasiera Data / Fecha comienzo | Amaiaera Data/ Fecha Fin |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

EK\CV GAO-I-2022-04505

| **TITULU AKADEMIKOAK** | | |
|---|---|---|
| Titulua | Nork emana/ Expedido por | Data/Fecha |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

| **FORMAKUNTZA GEHIGARRIA / FORMACIÓN COMPLEMENTARIA** | | | |
|---|---|---|---|
| Izena | Nork emana/Expedido por | Data/Fecha | Orduak |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

| | |
|---|---|
| SI ☐<br><br>NO ☐ | Deialdi honen ondoriozko lan poltsan egonez gero, baimena ematen al duzu zuren datu pertsonalak beste administrazioei lagatzeko, postu berdin edo antzekoetan langile ez iraunkorren beharrak betetzeko?<br><br>En el caso de quedar en la bolsa de trabajo derivada de la presente convocatoria, ¿consiente la cesión de sus datos personales a otras administraciones públicas a los efectos de cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares? |

| | |
|---|---|
| **Lanpostua betetzeko hautaketa prozesuan baloratu ditzan, ADIERAZTEN DUT idatzi ditudan datuak egiazkoak direla.** | **A los efectos de su valoración en el proceso selectivo para la provisión del puesto de trabajo DECLARO que son ciertos los datos consignados.** |

DATA/FECHA SINADURA/FIRMA

| | |
|---|---|
| Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 3ko 3/2018 Lege Organikoaren 11 artikulua eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. Eta 14 artikuluek informazio-eskubidea arautzen dute, eta Zeraingo Udalari baimena ematen diote emandako datu pertsonalak tratatzeko, aurreko paragrafoan aipatutako helburuak betetzeko.<br><br>Hala ere, edozein unetan erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko (“ahanzturara” eskubidea), tratamendua mugatzeko, eramangarritasuna bermatzeko, aurka egiteko eta banakako erabakiak hartzeko eskubideak, helbide honetan jakinaraziz: ZERAINGO UDALA - Ostatu plaza z/g – 20214 ZERAIN edo helbide elektroniko honetan: udala@zerain.eus | De conformidad con lo establecido en el artículo 11 de la Ley Orgánica 3/2018 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal y garantía de los derechos digitales y los artículos 13 y 14 del Reglamento General de Protección de Datos, por el que se regula el derecho de información, otorga su consentimiento al Ayuntamiento de Zerain, para que proceda en el cumplimiento de los fines mencionados en el apartado anterior, al tratamiento de los datos personales facilitados.<br><br>No obstante, en cualquier momento usted podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión (derecho “al olvido”), limitación del tratamiento, portabilidad, oposición y decisiones individualizadas, comunicándolo a ZERAINGO UDALA – Ostatu plaza s/n-20214 ZERAIN o al correo electrónico: udala@zerian.eus |

EK\CV GAO-I-2022-04505